

DOAKO JARDUERAK
ACTIVIDADES GRATUITAS

Bergarako Emakumeentzako Jabekuntza Eskola

Escuela de Empoderamiento
para mujeres de Bergara

École d'autonomisation des femmes · مدرسة التمكين للنساء

2024KO URRITIK ABENDURA
BITARTEKO EGITARAUA
PROGRAMA DE OCTUBRE
A DICIEMBRE DE 2024



*Galdera ez da nork
utziko didan egiten,
nork eragotziko
didan baizik*

*La pregunta no es
quién me va a
dejar hacerlo,
sino quién
me lo impedirá*

ليس السؤال من الذي سيسمح لي بفعل
ذلك بل من الذي سيمنعني من فعله

Ayn Rand

Bergarako emakumeentzako Jabekuntza

Eskola era askotako
emakumeentzako
topaketa-gunea da.

Bertan, praktika eta
teoria feministetan
murgiltzen gara;
konpartitu, hausnartu
eta elkarrengandik ikasi; eta
nork bere burua eta elkar
zaintzeari denbora
eskaintzen diogu.
Era berean, gure artean
sareak sortu eta espazio
emozional, fisiko, sozial
eta politiko berriak
okupatu nahi ditugu.

Proiektua bizia eta
dinamikoa da.
Hizkuntza nagusia Euskara
duen arren, aldi berean,
Bergaran bizi garen
emakume anitzen
identitateetatik eraiki nahi
dugun proiektua da.

Parte hartzera
animatuko zara?

La Escuela de
Empoderamiento para
mujeres de Bergara es un
punto de encuentro para
mujeres diversas.

En ella nos sumergimos
en prácticas y teorías
feministas; compartimos,
reflexionamos y
aprendemos unas de otras;
y dedicamos tiempo a
cuidarnos, individual
y colectivamente.
También pretendemos
enredarnos y ocupar
nuevos espacios
emocionales, físicos,
sociales y políticos.

Es un proyecto vivo y
dinámico. Y, aunque tiene
por lengua principal el
Euskera, a la vez es un
proyecto que queremos
construir desde las
identidades propias de la
diversidad de mujeres que
vivimos en Bergara.

¿Te animas a participar?

KILIMATERIOA, bat bateko bertsoak eta bakarriketa

KILIMATERIO,
bertsos y monólogo

Urriaren 24an, osteguna
24 de octubre, jueves
20:00 - 21:00
Seminarixoa



Zer gertatzen da emakumearen bizitzan klimaterioan sartu eta menopausia ate joka dagoenean? Nola sentitzen gara? Alboan duguna akabatzeko moduan gaude. Suminkortasunez beteta abanikoen erreginak bilakatzen gara. Eraldaketa prozesu honek bestelakoak ere ematen dizkigu.

KILIMATERIOAK klimaxera iristeko autopista bilatzen ari denean klimaterioarekin topo egiten duen emakumearen ibilerak kontatuko ditu, bakarriketa eta bertsoak uztartuz elkarrizketara bidea egiteko.

Emakume helduak oholtza gainean, sortzaileak, sorginak, bakoitza egoera eta ziklo desberdin batean murgilduta gaiari umorez eta konplexu gabe heltzeko gozoz.

¿Qué pasa en la vida de la mujer cuando entra en el climaterio y la menopausia llama a la puerta? ¿Cómo nos sentimos? Estamos en condiciones de acabar con lo que tenemos al lado. Llenas de irritabilidad nos convertimos en las reinas de los abanicos. Este proceso de transformación también nos da otras cosas.

KILIMATERIO contará las andanzas de la mujer que se encuentra con el climaterio cuando busca la autopista para llegar al clima, combinando monólogos y bertsos para dar paso al diálogo.

Mujeres adultas sobre el escenario, creadoras, brujas, cada una inmersa en una situación y un ciclo diferente con ganas de abordar el tema con humor y sin complejos.

MINDFULNESS EMAKUMEEN AHALDUNTZERAKO

MINDFULNESS PARA
EL EMPODERAMIENTO
DE LAS MUJERES

ASTEARTEETAN / MARTES
10:30-12:30



Tailer honetan barnean daramaguna arnasten, askatzen eta, aldi berean, baretzen saiatuko gara; eta horretarako meditazioak, luzaketak eta talde dinamikak egingo ditugu.

“Mindfulness”a meditazio praktika bat da, gorputzarekin, emozioekin, geure buruarekin eta inguruarekin kontaktuan egoteko praktika bat.

Eta bide batez orainaldia emakume gisa ahalik eta askeen eta ongien bizitzeko aukera batzuk landuko ditugu.

En este taller intentaremos respirar, liberar y al mismo tiempo calmar lo que llevamos dentro. Y para ello utilizaremos meditaciones, estiramientos y dinámicas de grupo.

El “mindfulness” es una práctica de meditación, de contacto con el cuerpo, con las emociones, con nosotras mismas y con el entorno.

Y de paso trabajaremos algunas posibilidades para vivir el presente como mujeres lo más libre y lo mejor posible.

Urriaren 15etik abenduaren 17ra (10 saio). Del 15 de octubre al 17 de diciembre (10 sesiones).

Agorrosin Kirol Gunea

Bideratzailea Facilitadora
CLARA WOLFRAM PEREZ
MINDFULNESS INSTRUKTOREA,
BERDINTASUN ETA SEXUALITATEAN
ADITUA INSTRUKTORA DE
MINDFULNESS, EXPERTA EN
IGUALDAD Y SEXUALIDAD

JOSKINTZA
ERALDATZAILEA

COSTURA
REVOLUCIONARIA

ASTEARTEETAN / MARTES
18:00-20:00



Ikastaroan oinarrizko joskintza eta arropa konponketak ikasiko ditugu, egunerokotasunean erabilgarri izango zaizkigunak. Bide batez, moda industriari gugan eragindako presioak identifikatzen eta kontsumitzaile gisa ahalduntzeko bideak bilatzen arituko gara. Ez da esperientziarik ez josteko makinarik behar parte hartzeko.

En el curso aprenderemos costura básica y arreglos de ropa que nos serán de utilidad en el día a día. De paso, nos dedicaremos a identificar las presiones ejercidas sobre nosotras por la industria de la moda y a buscar vías para empoderarnos como consumidoras. No hace falta experiencia ni máquina de coser para participa

Urriaren 15etik azaroaren 26ra (7 saio). Del 15 de octubre al 26 de noviembre (7 sesiones).

Irizar Jauregia

Bideratzailea Facilitadora

MICHAELA FORTOVA

UPCYCLING TEKNIKAREN BIDEZ
SORTZEN DABILEN ARTISAUA ETA ARROPA
KONPONTZAILEA, ENDREDAMAKINA
MARKAREN ATZEAN DAGO.
ARTESANA CREADORA MEDIANTE LA
TÉCNICA DEL UPCYCLING Y REPARADORA
DE ROPA BAJO LA MARCA
ENDREDAMAQUINA.

ELIKADURA MENOPAUSIAN: GOSEAK BUZTANA LABUR

ALIMENTACIÓN EN
MENOPAUSIA: QUE NO
TE COMAN LA TOSTADA

ASTEAZKENETAN / MIÉRCOLES
18:00-20:00



Menopausiara hurbiltzen bazaude edo heldu bazara, zorionak emakume! Ongietorri aldaketez gainezka dagoen etapa berri eta zirrargarri honetara.

Betidanik emakumeok jan izan dugu edo sistematikoki janaria kendu digute besteen oniritzia lortzeko. Baina bizitzako etapa honen bueltan bazau de bada garaia gorputz indartsu eta osasuntsu bat izateko jaten hastea.

Aste hauetan zerk egiten digun ondo ikasiko dugu. Albo ondorioak nola saihestu eta egunerokotasunean ikasitako guztia praktikan nola jarri izango da helburua.

Zeren zain zaude? Orain da zure momentua.

Si te acercas a la menopausia o has llegado, ¡enhorabuena mujer!

Bienvenida a esta nueva y emocionante etapa repleta de cambios.

Desde siempre las mujeres hemos comido o nos han quitado sistemáticamente la comida para obtener el beneplácito de los demás. Pero si estás a la vuelta de esta etapa de la vida ya es hora de empezar a comer para tener un cuerpo fuerte y sano.

Estas semanas vamos a aprender qué es lo que nos hace bien. El objetivo será evitar los efectos secundarios y poner en práctica todo lo aprendido en el día a día.

¿A qué esperas? Ahora es tu momento.

Urriaren 16tik 30era (3 saio). Del 16 al 30 de octubre (3 sesiones).

Irizar jauregia Palacio Irizar

Bideratzailea Facilitadora
MIREIA ALBERDI
DIETISTA NUTRIZIONISTA

EMAKUMEAK
MUGIMENDUAN

MUJERES EN
MOVIMIENTO

OSTEGUNETAN / JUEVES
16:30-18:00



Dantzaren bidez gure barneko sortzailea aterako dugu, denok garelako sorginak, denok sortzen dugulako neurri batean edo bestean, eta sormena lantzeak autoestimua igo eta indarra ematen digulako gure egunerokotasunean erabakiak modu aske batean hartzeko.

Saio hauetan parte hartzeko ez da dantzan jakin behar. Dantza eta mugimendu inprobisatuaren bidez gure dantza eta mugimendu propioak sortuko ditugu.

A través de la danza sacaremos nuestra creadora interna, porque todas somos brujas, todas creamos en una medida u otra, y el cultivo de la creatividad nos eleva la autoestima y nos da fuerza para tomar decisiones de una manera libre en nuestro día a día.

Para participar en estas sesiones no hay que saber bailar. Mediante la danza y el movimiento improvisado crearemos nuestros propios bailes y movimientos.

Urriaren 17tik abenduaren 19ra (10 saio). Del 17 de octubre al 19 de diciembre (10 sesiones).

Agorrosin Kirol Gunea

Bideratzailea Facilitadora
OIHANE VICENTE AGIRREZABAL
DANTZA ETA MUGIMENDU TERAPEUTA
TERAPEUTA DE DANZA Y MOVIMIENTO

XILOGRAFIA

XILOGRAFÍA

OSTEGUNETAN / JUEVES
18:00-20:00



Xilografia tailer honen xedea da emakumeok gure eskuez sortzeko dugun gaitasunari aukera ematea. Horretarako, grabatua egiteko antzinako teknika ikasteaz gain, elkarrekin lan egingo dugu sormen indibidualari zein kolektiboari bide emateko. Kurtso honetan arituko gara, xilografia teknikaz gain, historian zehar emakume artistek izan duten paperaz.

El objeto de este taller de xilografía es dar una oportunidad a la capacidad que tenemos las mujeres para crear con nuestras manos. Para ello, además de aprender la antigua técnica de grabado, trabajaremos juntas para favorecer la creatividad tanto individual como colectiva. También hablaremos del papel de las mujeres artistas a lo largo de la historia.

Azaroaren 7tik abenduaren 12ra
(6 saio). Del 7 de noviembre al 12 de
diciembre.

Angiozar

Bideratzailea *Facilitadora*
OIHANA UGARTE IRIARTE

OPEN SEX

OSTIRALA / VIERNES
18:00-20:00



Emakumeen historia sexualera bidaia, 1760tik gaur egunera. Anatomia genitala deskubrituko duzu Alooarekin, munduko lehen molde anatomikoa, zure orgasmoekin konektatuko zara, zure gorputza sexu-esnatzean eta jostailu erotikoekin gozatzean sartuz, eta zure sexu-zalantzak modu profesionalan argitu ahal izango dituzu.

Un viaje a la historia sexual femenina, desde 1760 hasta nuestros tiempos. Descubrirás la anatomía genital con Alooa, el primer molde anatómico del mundo, reconectarás con tus orgasmos introduciendo tu cuerpo en el despertar sexual y en el placer con juguetes eróticos y podrás resolver tus dudas sexuales de forma profesional.

Urriaren 18an (saio bakarra). 18 de octubre (única sesión).


Irizar jauregia Palacio Irizar

Bideratzailea Facilitadora
LOLA DACOSTA
NAZIOARTEKO SEX COACH,
SEXOLOGIAREN ETA SEXU- ETA BIKOTE-
TERAPIAN ESKU-HARTZEAREN
GRADUONDOKOAREKIN
SEX COACH INTERNACIONAL CON UN
POSGRADO EN SEXOLOGÍA E
INTERVENCIÓN EN TERAPIA SEXUAL
Y DE PAREJA

ZAINZAKO LANGILE DIREN EMAKUME MIGRATUENTZAKO BIZITEGI-ALTERNATIBAK

ALTERNATIVAS
HABITACIONALES PARA LAS
MUJERES MIGRADAS
TRABAJADORAS DE CUIDADOS

Azaroaren 14an, osteguna
14 de noviembre, jueves
18:00 - 20:00
Irizar jauregia Palacio Irizar



Emakume migratuen hainbat elkarte estrategiak eta alternatibak sortzen ari dira etxeko lanak eta barne-erregimeneko zainketak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko. Horien artean dago zaintzako langile diren emakume migratuentzako bizitegi-alternatiben sare bat sortzea.

“Emakume Migratu Feministak – Trabajadoras Sociosanitarias” elkarteko María Juncayk eta Malenetxea elkarteko Silvia Carrizok beren elkarteak Bizkaian eta Gipuzkoan ildo horretan garatzen ari diren esperientziak kontatuko dizkigute, hurrenez hurren. Horiekin batera, Bergaran antzeko esperientzia bat martxan jartzeko aukera aztertuko dugu.

Desde diversas asociaciones de mujeres migradas se están generando estrategias y alternativas para avanzar en la erradicación del trabajo de hogar y de cuidados en régimen de interna. Entre ellas se encuentra la creación de una red de alternativas habitacionales para las mujeres migradas trabajadoras de cuidados.

María Juncay, de la asociación “Emakume Migratu Feministak – Trabajadoras sociosanitarias” y Silvia Carrizo, de la asociación Malenetxea, nos contarán las experiencias que sus asociaciones están desarrollando en este sentido en Bizkaia y Gipuzkoa respectivamente. Junto a ellas estudiaremos la posibilidad de poner en marcha una experiencia similar en Bergara.

**EMAKUME MIGRATUAK ETA
JARDUERA FISIKOA**

**MUJERES MIGRADAS Y
ACTIVIDAD FÍSICA**



Proiektu honen bidez, Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak Bergaran bizi diren emakume migratuei jarduera fisikoa egiteko aukera erraztu nahi die.

Beste herrialde batetik bazatoz eta Agorrosin Kirol Zentroan antolatzen diren jarduerak ezagutu eta horietan parte hartu nahi baduzu, eman izena ekimen honetan eta zurekin harremanetan jarriko gara proiektu berri honi buruzko informazio guztia emateko.

Mediante este proyecto el Servicio de Deportes del Ayuntamiento de Bergara quiere facilitar el acceso a la práctica de la actividad física a las mujeres migradas que viven en Bergara.

Si procedes de otro país y te interesa conocer y participar en las actividades que se organizan en el Centro Deportivo Agorrosín apúntate a esta iniciativa y nos pondremos en contacto contigo para facilitarte toda la información sobre este nuevo proyecto.

M
**EMAKUMEOK
MUGIMENDUAN
MUJERES
Y ACTIVAS**

PROIEKTU BERRIAK NUEVOS PROYECTOS

GURE ARTEAN
EUSKARAZ!

¡ENTRE NOSOTRAS
EN EUSKERA!



Proiektu honen bidez, emakumeentzako oinarrizko euskara-ikastaro bat jarri nahi dugu martxan.

Ikastaroa urritik ekainera emango da, astean ordubeteko bi saio izanik.

Helburua izango da batez ere ulermena lantzea, ikasleek euskarazko oinarrizko eta eguneroko adierazpenak (agurrak, zenbakiak, oinarrizko instrukzioak eta deskribapenak...) ulertu ahal izan ditzaten.

Talde honetan parte hartu nahi baduzu, izena eman eta deituko zaitugu. Guztion artean adostuko ditugu ondoen datorkigun eguna eta ordutegia.

Mediante este proyecto queremos poner en marcha un curso básico de euskera para mujeres.

El curso tendrá una periodicidad de dos sesiones semanales de una hora de duración entre octubre y junio.

El objetivo será trabajar sobre todo la comprensión, de modo que las alumnas puedan comprender las expresiones más básicas y cotidianas en euskera (saludos, números, instrucciones y descripciones básicas...).

Si te interesa participar en este grupo apúntate y te llamaremos. Entre todas acordaremos el día y el horario que mejor nos convenga.

Zaintza eta etxeko langileei,
eta kontratatzaileei
zuzendutako lege
aholkularitza zerbitzua

Servicio de asesoramiento
jurídico dirigido a
trabajadoras de cuidados
y hogar y personas
contratantes



ASTEAZKENETAN / MIÉRCOLES
15:30-18:30

Langileen eta kontratatzaileen
eskubide eta tramiteei buruzko
informazioa emango da.

Aldez aurretik hitzordua eskatu behar
da.

Se informará sobre los derechos y trámites
de personas trabajadoras y contratantes.

Hay que pedir cita previa.

Ehundu taldearen lokalean
(Mizpildi kalea 2, Bergara).
Local del grupo Ehundu
(C/Mizpildi, 2 de Bergara).

Hitzordua eskatzeko
Para solicitar cita previa

943779145
berdintasuna@bergara.eus

Bideratzailea Facilitadora
IRATI AIZPURUA ALQUEZAR
ABOKATUA ABOGADA



BERGARAKO EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA
ESCUELA DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES DE BERGARA

DATU PERTSONALAK DATOS PERSONALES

Izena Nombre:	
1. Abizena 1 ^{er} apellido:	
2. Abizena 2 ^o apellido:	
NANa / Pasaportea DNI/ Pasaporte:	
Jaioteguna Fecha de nacimiento:	
Bergaran erroldatutakoa? ¿Empadronada en Bergara?	<input type="checkbox"/> Bai Sí <input type="checkbox"/> Ez No
Helbidea Dirección:	
Telefono-zenbakia(k) Números de teléfono:	
Helbide elektronikoa E-mail:	

Euskara ulertzen duzu? ¿Entiendes Euskera?	<input type="checkbox"/> Bai Sí <input type="checkbox"/> Ez No
---	--

Beste herrialde batetik bazatoz, zein da jatorrizko herrialdea? Si vienes de otro país, ¿cuál es el país de origen?	
Hurtzaindegi zerbitzua behar duzu? ¿Necesitas un servicio de guardería?	<input type="checkbox"/> Bai Sí <input type="checkbox"/> Ez No
Behar bereziren bat duzu, adierazi: Si tienes alguna necesidad especial ¿Cuál?	
Berdintasun arlotik antolatzen diren ekimenen gaineko Informazioa jaso nahi duzu? ¿Quieres recibir Información sobre las iniciativas que se organizan desde el área de igualdad?	<input type="checkbox"/> Bai Sí <input type="checkbox"/> Ez No
Nola jaso nahi duzu informazioa? ¿Cómo desea recibir la información?	<input type="checkbox"/> E-postaz Por e-mail <input type="checkbox"/> Telefonoz Por teléfono

EKINTZAK ACTIVIDADES

Zein ekintzetan eman nahi duzu izena? Markatu "X" batekin

¿En qué actividades quieres inscribirte? Márcalas con una "X"

Bergara, 2024.....

Sinadura Firma

- Mindfulness emakumeen ahalduntzerako
Mindfulness para el empoderamiento de las mujeres
- Joskintza eraldatzailea Costura revolucionaria
- Elikadura menopausian: goseak buztana labor
Alimentación en menopausia: que no te coman la tostada
- Emakumeak mugimenduan Mujeres en movimiento
- Xilografia Xilografía
- Open sex Open sex
- Zaintzako langile diren emakume migratuentzako bizitegi-alternatibak
Alternativas habitacionales para las mujeres migradas trabajadoras de cuidados
- Gure artean euskaraz! ¡Entre nosotras en euskera!
- Emakume migratuak eta jarduera fisikoa
Mujeres migradas y actividad física

* Datu pertsonalak Bergarako Udalaren ardurapean tratatuko dira. Indarrean dagoen araudiak aitortutako eskubideak erabili ahal izango dira helbide honetara zuzenduta: Bergarako Udala, San Martín Agirre Plaza 1, 20570 Bergara. Halaber, informazio osagarria eskuragarri dago Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamendua: 1908.

* Bergarako Udalari baimena ematen diot Berdintasun Zerbitzuak antolatutako jardueren eta Berdintasun Zerbitzuarekin lotutako informazio interesgarriaren berri niri emateko telefono mugikorraren zenbakira edo nik emandako helbide elektronikora bidaliko mezu bidez.

* Informazioa jasotzeki uko egin diezaiokezu edozein momentutan Datuen Babeserako Ordezkarirengana (dbo@bergara.eus) edo Berdintasun Zerbitzura zuzenduta (berdintasuna@bergara.eus). Datu-Tratamendu honen informazio osagarria eskuragarri dago Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamendua: 0710

* Los datos personales serán tratados bajo la responsabilidad del Ayuntamiento de Bergara. Los derechos reconocidos por la normativa vigente podrán ejercitarse dirigiéndose al Ayuntamiento de Bergara, Plaza San Martín Agirre 1, 20570 Bergara. Asimismo, la información complementaria está disponible en el Registro de Actividades de Tratamiento de Datos (www.bergara.eus/RAT). Tratamiento: 1908.

* Autorizo al Ayuntamiento de Bergara a que me informe de las actividades organizadas por el Servicio de Igualdad y de la información de interés relacionada con el servicio de igualdad a través de mensajes enviados al teléfono móvil o a la dirección de correo electrónico facilitada por mí.

* Puede negarse a recibir información en cualquier momento ante la persona Delegada de Protección de Datos (dbo@bergara.eus) o dirigiéndose al Servicio de Igualdad (berdintasuna@bergara.eus). La información complementaria a este tratamiento de datos se encuentra disponible en el Registro de Actividades de Tratamiento de Datos (www.bergara.eus/RAT). Tratamiento: 0710

IZEN-EMATEA INSCRIPCIÓN

Izena emateko ezinbestekoa da "IZENA EMATEKO ORRIA" betetzea.

Plaza kopurua mugatua da. Tailerretako plazak esleitzeko zozketa egingo da izena eman duten emakume guztien artean. Zozketan lehentasuna izango dute Bergaran erroldatutako emakumeek.

Izena emateko epea amaitutakoan, taldea sortu eta plaza librerik geratzen bada, izen gehiago jaso ahal izango dira, plazak bete arte.

- **Izena emateko epea:**
irailaren 17tik urriaren 6ra.
- **Zozketa eta plazak baieztatzea:**
urriaren 7ko astean.
- **Izena emateko modua:**
Udaleko webgunean dagoen inprimakia beteta: <https://www.bergara.eus/eu/udal-zerbitzuak/berdintasuna>
Inprimakia paperean bete eta Udaleko Berdintasun Sailean edo udaletxeko BAZen entregatuta (San Martin Agirre plaza 1).
Inprimakia paperean bete eta Udaleko Berdintasun Sailera eskaneatuta bidaliz (berdintasuna@bergara.eus)

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA:

Tailer eta hitzaldi guztietan, doako haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko zaie parte-hartzaileei.

Para inscribirse es imprescindible rellenar la "HOJA DE INSCRIPCIÓN".

El número de plazas es limitado. La adjudicación de las plazas de los talleres se realizará mediante sorteo entre todas las mujeres inscritas. En el sorteo tendrán preferencia las mujeres empadronadas en Bergara.


Una vez finalizado el plazo de inscripción, si se crea el grupo y quedan plazas libres, se podrán admitir más inscripciones hasta completar las plazas.

- **Plazo de inscripción:** del 17 de septiembre al 6 de octubre
- **Sorteo y confirmación de plazas:** semana del 7 de octubre
- **Forma de inscripción:**
Rellenando los datos del formulario que se encuentra en la web municipal: <https://www.bergara.eus/eu/udal-zerbitzuak/berdintasuna>
Cumplimentando los datos del citado formulario en papel y entregándolo en el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento o en el SAC/BAZ del Ayuntamiento (Plaza San Martín Agirre 1).
Rellenando el formulario en papel y enviándolo escaneado al Departamento de Igualdad del Ayuntamiento (berdintasuna@bergara.eus).

SERVICIO DE GUARDERÍA:

En todos los talleres y conferencias se ofrecerá un servicio gratuito de guardería a las participantes.

**Berdintasun arloko
ekintzei buruzko
informazioa jaso
nahi duzu?**

 **Whatsappez:**

Gorde telefono zenbaki hau zure
mugikorrean: 688811760

Bidali mezu bat, eta alta eman
nahi duzula adierazi.

 **E-postaz:**


Bidali mezu bat
berdintasuna@bergara.eus
helbidera, eta alta eman nahi
duzula adierazi.

**¿Desea recibir información
sobre acciones en materia
de igualdad?**

 **Por Whatsapp:**

Guarda este número de teléfono en
tu móvil: 688811760

Envía un mensaje indicando que
deseas darte de alta.

 **Por e-mail:**

Envía un mensaje a
berdintasuna@bergara.eus
indicando que quieres darte
de alta.





Argibide gehiago:

Udalaren Berdintasun
zerbitzuan:

- San Martin Agirre plaza 1,
udaletxeko hirugarren
solairuan.
- 943779145 · 688811760
- berdintasuna@bergara.eus



Más información:

En el servicio de Igualdad del
Ayuntamiento:

- Plaza San Martín Agirre 1, en la
tercera planta del Ayuntamiento.
- 943779145 · 688811760
- berdintasuna@bergara.eus





Begarako
Udala